

## BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1858

*AGINDUA, 2025eko apirilaren 8koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira, 2025eko ekitaldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak (Erein programa).*

Nekazaritza Politika Erkidea (NPE) sortu zenetik (1962. urtea), politika hori sektorearen erronketara eta herritarren behar berrietara egokitu da, ondoz ondoko erreformen bidez.

NPEaren azken erreforma 2021eko abenduan bukatu zen, hiru erregelamendu argitaratu baitziren, zeinek, erregelamendu eskuordetu eta betearazle egokiekin batera, 2023-2027 aldian NPEaren aplikazioaren oinarriak ezarri eta hura arautu baitzuten, izan zitezkeen luzapenak alde batera utzi gabe.

Alde batetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamendua, nekazaritza politika erkidearen esparruan estatu kideek egin beharreko plan estrategikoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzen dituen (NPEaren plan estrategikoak) –Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuta– eta 1305/2013 (EB) Erregelamendua eta 1307/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen dituen.

Bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamendua, nekazaritza politika erkidearen finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa eta 1306/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen duena.

Eta, azkenik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2117 Erregelamendua (EB), honako hauek aldatzen dituen: 1308/2013 Erregelamendua (EB), nekazaritza-produktuen merkatu antolakunde erkidea sortzen duena; 1151/2012 Erregelamendua (EB), nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideei buruzkoa; 251/2014 Erregelamendua (EB), mahastizaintza eta ardogintzako produktu aromatizatuen adierazpen geografikoen definizio, deskribapen, aurkezpen, etiketatu eta babesari buruzkoa; eta 228/2013 Erregelamendua (EB), nekazaritza-sektorean Europar Batasuneko eskualde ultraperiferikoen aldeko neurri espezifikoak ezartzen dituen.

NPE berriak, 2023tik 2027ra aplikatuko denak, aurreko NPEaren funtsezko elementuei eutsiko die, baina laguntzen azken onuradunek bete beharreko betekizunen deskribapenean oinarritutako politika izatetik emaitza zehatzak lortzera bideratutako politika izatera igaroko da, emaitzok hiru helburu nagusiri lotuta: epe luzera elikagaien segurtasuna bermatzeko duen nekazaritza-sektore adimenduna, lehiakorra, erresilientea eta dibertsifikatua sustatzea; ingurumenaren babesa, biodibertsitatea barne, eta klimaren aldeko ekintza babestea eta indartzea, eta Batasunaren ingurumen- eta klima-helburuak lortzen laguntzea, tartean, Parisko Akordioari jarraikiz hartutako konpromisoak; eta landa-eremuetako ehun sozioekonomikoa indartzea. Helburu orokor horiek, era berean, bederatzi helburu espezifikotan banakatzen dira, jasangarritasunaren hiru zutabeetan oinarrituta, eta zeharkako helburu komun batekin osatuta: nekazaritza-sektorea modernizatzea landa-eremuetan, ezagutzaren, berrikuntzaren eta digitalizazioaren bidez.

2023-2027 NPEaren berrikuntza nagusietako bat da estatu kide guztiek plan estrategiko baka-rra izan behar dutela, eta plan horretan, NPEaren helburuak lortzeko laguntzako esku-hartzeak ez ezik, Europako Itun Berdearen anbizioa ere jasoko da.

Ilido horretan, hiru urte inguruko lan-prozesu baten ondoren, 2022ko abuztuaren 31n, Europako Batzordeak Espainiako NPEaren Plan Estrategikoa (NPEPE) onartu zuen, C(2022) 6017 Erabakiaren bidez. Lan-prozesu hori Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak koordinatu zuen, eta autonomia-erkidegoek parte hartu zuten, bai beharren diagnostikoaren eta analisiaren hasierako fasean, bai estrategia artikulatzeko eta esku-hartzeak diseinatzeko ondorengo fasean.

Plana abian jarri zenetik, bi aldiz aldatu da: lehenengoa, Batzordearen 2023ko abuztuaren 30eko C(2023) 5746, azkena, Betearazpen Erabakiaren bidez, eta, bigarrena, Batzordearen 2024ko abuztuaren 30eko C(2024) 6133, azkena, Betearazpen Erabakiaren bidez.

NPEPE horretan jaso dira bai lehen oinarriaren esparruan programatutako laguntza-arloko esku-hartzeak (zuzeneko eta sektoreko laguntzak, NBEF funtsak finantzatutakoak), estatu mailan zuzenean aplikatuko direnak, bai bigarren oinarriko landa-garapeneko esku-hartzeak (LGENF funtsak batera finantzatutakoak), maila autonomikoan inplementatu eta garatzen direnak, kasuan-kasuan ezarritako eskualde-berezitasunekin eta autonomia-erkidego bakoitzak lurraldean programatu dituen esku-hartzeen eta aurrekontuen arabera.

Horren ondorioz, EAEren kasuan, 2024ko ekainaren 11n argitara eman zen 66/2024 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa ezartzeko eta landa-eremuen karakterizazioa finkatzeko dena. Era horretan, NBEF funtsaren esku-hartze sektorialeak eta zuzeneko ordainketek gainera, landa-garapeneko 18 esku-hartze programatu dira (LGENF). Bigarren oinarriaren eremuan EAEn programatutako landa-garapeneko 18 esku-hartze horien artean dago diruz lagundu nahi den landa-eremuetako oinarritzko zerbitzuetako inbertsio ez-produktiboei buruzkoa.

Horregatik, NPEPEn xedatutakoaren babesean, eta maiatzaren 28ko 66/2024 Dekretuaren esparruan, egokia da esku-hartze horietarako laguntzen beste deialdi bat egitea Euskal Autonomia Erkidegoan. Era berean, hauxe da Landa Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legearen xedea: EAEko landa-ingurunearen garapen jasangarriko jarduketak gidatuko dituen arau-esparrua antolatu eta ezartzea, eta hori guztia landa-ingurunea lurraldeko gainerakoarekiko berdintasunean egon dadin, ingurune hori funtsezko eragilea baita herrialde osoaren garapen eta kohesiorako, ekonomiari, gizarteari eta lurraldeari dagokienez.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sail sortu berriak bere Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (DPE) egiten duen bitartean, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sail desagertuari dagokion planean jasota daude deitu beharreko laguntzak. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko abenduaren 28ko Aginduaren bidez (eta haren ondorengo eguneratzeen bidez) onartu zen plan hori (agindu horren bidez, sail horren 2024., 2025. eta 2026. urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen da). Laguntza hauek aipatutako planean ezarritako helburuak lortzen laguntzen dute. Plana helbide honetan dago eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/sail-plana/dirulaguntzen-plan-estategikoa-ekonomiaren-garapen-jasangarritasun-eta-ingurumen-sailarena-2024-2025-eta-2026-urteetarako>

Laguntza-deialdi honek aurrekontu-zuzkidura nahikoa du, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legeak baimendutako kredituen arabera.

Esku-hartze honen bidez finantzatzen diren operazioek ez dute estatu-laguntzen araudia bete behar; izan ere, inbertsio publikoak dira, interes orokorrekoak tokiko komunitateentzat, eta ez dute eragin nabarmenik sortzen EBko merkatuaren lehian, tokiko/eskualdeko irismena dutelako.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua ezartzen du ezen, hartatik eragotzi gabe Jaurlaritzako kide gisa dagozkien eskumenak, sailburuek eskudantzia dutela administrazio-xedapen orokorrak eta ebazpenak emateko beren sailari dagozkion gaietan. Horrenbestez, hau

Hori dela bide, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Deialdia.

Onartzea, 2025. urterako, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko entitate publikoei zuzendutako laguntzen oinarriak (Erein programa), 2023-2027 aldiko NPEPE-ren «Inbertsioak landa-eremuko oinarritzko zerbitzuetan» esku-hartzearen barnean. Agindu honen I. eranskinean daude jasota laguntza horiek.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.— Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtsoa jar diezaioke interesdunek Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.— Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 8a.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,  
AMAYA BARREDO MARTÍN.

## I. ERANSKINA

1. oinarria.– Xedea, izaera eta esparru geografikoa.

1.– Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko entitate publikoei zuzendutako laguntzen deialdia egitea 2025eko ekitaldirako (Erein programa), 2023-2027 aldiko NPEPERen «Inbertsioak landa-eremuko oinarrizko zerbitzuetan» esku-hartzearen barnean.

2.– Aplikazio-eremu geografikoaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremu guztiak sartuko dira, entitate-mailaren arabera sailkatuta (agindu honen II. eranskinean zehazten den eran), eta honako hauek bereiziko dira:

a) Arreta Bereziko Eremuak (ABE); alegia, zaurgarritasun-maila handiena dutenak.

b) Gainerako landa-eremuak, ZM2, ZM3 eta ZM4 zaurgarritasun-maila dutenak, barnean direla ZM2 zaurgarritasun-maila duten partzoneriak.

2. oinarria.– Laguntza motak eta entitate onuradunak.

1.– Laguntza hauen xedeak dira landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea hobetuko duten azpiegiturak eta ekipamenduak eskuratzen laguntzea, herriak suspertzea, enplegua sortzea eta landa-eremuetan turismoa bultzatzea.

2.– Hauek izan daitezke laguntza hauen onuradun:

a) Toki-entitateak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, hau da:

I) Udalerria.

II) Kontzejuak eta udalerriarena baino eremu txikiagoko beste lurralde-entitateak, lurralde bakoitzean dagoen foru-araudian eta toki-araubidearen gaineko oinarrizko legerian ezarritakoaren arabera.

III) Udalerrien mankomunitateak.

IV) Arabako lurralde historikoko kuadrillak.

V) Beste zeinahi entitate, baldin eta tokiko lurralde-entitate zenbait biltzen baditu, dagokion izendapen bereziarekin, 2/2016 Legean eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoaren arabera. Toki-entitateen erregistroan inskribatuta egon behar dute. Ofizioz egiaztatuko da inskribatuta daudela.

b) Toki-entitateen sektore publikoa, a) apartatuko entitateei dagokiena.

c) Landa Garapeneko Elkartek, baldin eta toki-entitateekin lankidetzaz hitzarmenak izenpetzen badituzte esku-hartze eremu baten aldeko proiektuak martxan jartzeko.

3. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

1.– Laguntzaren xedea da inbertsioak sustatzea mota guztietako azpiegitura edo zerbitzuak sortu, hobetu edo handitzeko, jarduketa hauen esparruan:

a) Uraren hornidurarekin eta saneamenduarekin eta energia elektrikoaren eta gasaren hornidurarekin eta kanalizazioarekin lotutako oinarrizko azpiegiturak (bai berriak, bai ordezkatu

beharrekoak, ordezkatu ezean zerbitzuaren prestazioa baldintzatuko balitz; hori egiaztatzeko, arloan eskumena duen maila teknikoko hirugarren batek egindako txostena aurkeztu beharko da).

b) Energia berriztagarrien erabilera eta energia-aurrezpena sustatzeko azpiegiturak, toki-komunitateari zerbitzuak ematera bideratutako eremuetan. Beraz, kanpoan geratzen dira ohiko zerbitzu propioak ematera bideratuta daudenak, oinarri honen 3.a) apartatuan adierazten denaren arabera.

c) Turismoarekin zerikusia duten zerbitzuetarako proiektuak eta azpiegiturak: interpretazio-zentroak/museoak eta turismo-bulegoak, bidezidor eta bide homologatuak eta horietarako seinaleak, autokarabanentzako aparkalekuak, etab.

d) Biztanle-guneak egokitzearekin zerikusia duten azpiegiturak, haien hirigintza-oneratzea eta -egokitzapena xede dutenak: irisgarritasuna, lorategiak jartzea, argiteria eta hiri-altzariak.

e) Oinarrizko zerbitzuentzako proiektuak: eguneko zentroak eta adinekoentzako egoitzak, haur-eskolak eta farmaziak/botika-kutxak/osasun-zentroak.

f) Aisia, kultura eta kirolarekin zerikusia duten zerbitzuentzako proiektuak: kultur etxeak, liburutegiak, erabilera anitzeko zentroak, kirol-ekipamenduak edo aisialdikoak.

g) Ekipamendu komunitarioetako irisgarritasunarekin zerikusia duten proiektuak.

h) Industrialde txikiak urbanizatzeko proiektuak.

2.– Proiektuen garapena faseka egiteko bada, faseok modu bereizian lagundu ahal izango dira diruz, baldin eta zortzigarren oinarriko 7. paragrafoko j) apartatuan aipatzen den memoria atxikita badute.

3.– Dirulaguntzatik kanpo geratuko dira proiektu mota hauek:

a) Entitate onuradunen berezko jardueretara bideratutako estantzietan egindako jarduketak.

b) Larrialdiko etxebizitzak.

c) Fasetan banatu gabe dauden proiektuetarako inbertsioak, horien xedea higiezinak eraistea edo erostea bakarrik denean.

d) Euste-hormak, zerbitzu bat baldintzatzen badute salbu.

e) Ondare-elementuen birgaikuntza, zerbitzu bat ematea barne hartzen badu salbu.

f) Kaleak, bideak, homologatu gabeko bideak, espaloiak eta abiadura moteltzeko elementuak (arekak, irtenguneak...) zolatzeko helburu eksklusiboa duten proiektuak.

g) Hilerriak.

4.– Diruz laguntzekoak diren jarduketak ezin izango dira amaituta egon eskabidea aurkezten denerako, eta ezin dira izan 2024a baino lehenago hasitakoak. Egoera hori in situ ikuskapen baten bidez egiaztatuko da. Ikuskapena hilabeteko epean egingo da gehienez ere, laguntza-eskaera sartzen den egunetik kontatzen hasita, eta kontrol-akta bat bidaliko da horretarako, jarduketa ez dela amaitu ziurtatuko duena. Tokian bertan ikuskatu ezin diren gastuen kasuan, justifikazioaren unean egiaztatuko dira alderdi horiek, faktura bidez. Espedienteak barne hartu beharko ditu laguntza-eskaera aurkeztu den egunaren osteko gastu-egiaztagiria.

Aurreko paragrafoan adierazitako hilabeteko epa luzatu ahal izango da, Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendariaren ebazpen baten bidez, salbuespenez, eskaera-bolumenaren eta zerbitzuaren beharren arabera.

4. oinarria.– Diruz lagundutako jarduera kontratatzea.

1.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikulua aplikatuta, ulertu behar da entitate onuradunak diruz lagundutako jarduerak kontratatzen dituela dirulaguntzaren xede diren jardueren egikaritze osoa edo partziala hirugarrenekin hitzartzen duenean. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da diruz lagundutako jarduera bere kontura gauzatu ahal izateko entitate onuradunak egin behar dituen gastuen kontratazioa.

2.– Diruz lagundutako jardueraren % 100 kontratatu dezake onuradunak. Ezin izango da jarduerarik kontratatu, baldin eta, diruz lagundutako jardueraren kostua gehituta, inongo balio erantsirik ematen ez badio jardueraren edukiari. Hirugarrenekin hitzartutako jarduerak dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000 euro baino gehiagokoa bada, kontratazioak betekizun hauek bete beharko ditu:

a) Kontratua idatziz egitea.

b) Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak aldeztu aurretik baimena ematea kontratua egiteko.

Beste administrazio publiko batek aurretik diruz lagundu badu jarduera, ulertu beharko da administrazio honek egiaztatu duela eskakizun horiek betetzen direla.

3.– Ezingo da kontratua zatikatu, zenbatekoa murrizteko eta aurreko apartatuko eskakizunak bete beharrik ez izateko.

4.– Kontratistek onuradunaren aurrean bakarrik izango dituzte betebeharrak, onuradunak izango baitu diruz lagundutako jarduera gauzatzeko erantzukizun osoa Administrazioaren aurrean.

5.– Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, onuradunei dagokie ziurtatzea ezen, diruz lagundutako jarduera hirugarrenekin hitzartuz gero, agindu honetan ezarritako mugak errespetatuko direla diruz lagundutako gastuen izaerari eta zenbatekoari dagokienez. Kontratistek, bestalde, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 42. artikuluan aurreikusitako lankidetzaren betebeharra bete behar dute, muga horiek betetzen direla behar bezala egiaztatzen uzteko.

6.– Onuradunek inola ere ezingo dute honako hauekin hitzarmenik egin diruz lagundutako jarduera osoa edo haren zati bat gauzatzeko:

a) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluko debekuren bat duten pertsona edo entitateekin.

b) Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntzaren bat jaso duten pertsona edo entitateekin.

c) Eragiketaren kostu osoaren ehuneko bat ordainduko litzaiekeen bitartekariekin edo aholkulariekin, non eta ordainketa ez dagoen justifikatuta egindako lanaren edo emandako zerbitzuen merkatu-balioaren arabera.

d) Entitate onuradunarekin loturaren bat daukaten pertsonekin edo entitateekin, inguruabar hauek gertatzen direnean izan ezik:

1) Aldeztu aurretik Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordearen berariazko baimena eskuratzea, ebazpen arrazoitu baten bidez.

2) Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa ez izatea atxikitako entitateak egindako kostua baino handiagoa. Kostua justifikazioan egiaztatuko da, onuradunaren gastuak egiaztatzeko ezarritako termino beretan.

Pertsona fisiko edo juridikoekin edo nortasunik gabeko elkarteekin lotura dagoela joko da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31.8 artikuluan jasotako inguruabarren bat betetzen bada.

e) Deialdi edo programa berean laguntza eskatu duten baina betekizunak ez betetzeagatik edo behar den balorazioa ez lortzeagatik laguntzarik gabe geratu diren pertsonekin edo entitateekin.

5. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen kostutzat hartuko dira 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera eginiko inbertsioak eta/edo gastuak. Egun hori baino lehenagoko gastuak egonez gero, dirulaguntza ukatu egingo da, hurrengo paragrafoko f) eta g) apartatuei dagozkien gastuak izan ezik; izan ere, laguntza ukatzea ekarriko ez duten arren, ezingo dira deialdi honen kontura diruz lagundu.

2.– Oro har, hauek hartuko dira diruz lagundu daitezkeen kostutzat:

a) Ondasun higiezinak eskuratzea, lursailak izan ezik. Tasatzaile independente eta egiaztatu batek zehaztuko du balioa.

b) Urbanizazio-lanak burutzea.

c) Eraikitze-lanak burutzea.

d) Zaharberritze- edo birgaitze-lanak gauzatzea.

e) Lotutako beste azpiegitura batzuk.

f) Aurreko bost aparatuetan jasotako gastuei lotutako kostu orokorrak; adibidez, arkitektoen, ingeniarien eta aholkularien ordainsariak, diruz lagundu daitekeen kostuaren % 10eko gehieneko mugarekin.

g) Laguntza-eskaeraren xede den inbertsioari lotutako azterlanak, gehienez ere diruz lagundu daitekeen kostuaren % 10eko mugarekin.

h) Makineria eta ekipamendu berriak erostea eta haien finantza-errentamendua, ondasunaren merkatu-balioraino.

i) Jarduera berriari lotuta dauden bigarren eskuko ekipamenduak eta makinaria erostea, baldin eta aurreko 5 urteetan beste laguntzarik jaso ez badute.

j) Tresneria.

k) Altzariak.

l) Informatika- eta komunikazio-ekipoak, bai hardwarea, bai softwarea, eta programak eta aplikazio informatikoak eta web-orriak eta -plataformak eskuratzeko edo garatzeko inbertsioak.

m) Patenteak, lizentziak, egile-eskubideak eta erregistratutako markak eskuratu edo erregistratzeko egindako inbertsioak: 20.000 euroko dirulaguntza, gehienez.

n) Legeria nazionalaren arabera berreskuratu ezin den BEZa.

Laguntza-eskaerak, onartuko badira, gutxienez diruz laguntzeko moduko 6.000 euroko kostua izan beharko du.

3.– Hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Mantentze-gastuak eta funtzionamenduko beste edozein gastu.

b) Etxebizitzak, ibilgailuak edo etxean erabiltzeko ondasunak.

c) Lursailak eskuratzea.

d) Langile propioen gastuak.

e) Interes zordunak, finantza-gastuak eta banku-bermearen gastuak.

f) Berandutze-interesak, errekaruak, hertsapen-isunak, zehapen administratibo eta penalak eta prozedura judizialen gastuak.

g) Zuzeneko zergak eta gizarte-aurreikuspeneko edozein araubidetan eginiko ekarpenak, laguntzaren onuradunari dagokionez.

h) Zeharkako zergak, baldin eta errekueratu edo konpentsatu badaitezke, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak.

i) Ondasunak eta zerbitzuak erostearen ondoriozko faktura edo kontratuetan eginiko deskontuak, eta kontratu publiko edo pribatuetan kontratistak eginiko itzulketak edo ordainketak, aldaketen edo bestelako kausen ondorio direnak.

j) Ekipamendua eta makineria berritzeko edo soilik ordeztzeko inbertsioak, salbu eta teknologia ezberdina darabilten edo errendimendu hobea duten ekipoak eta makinak erosten badira, edo ez ordezteak zerbitzuaren prestazioa baldintzatzen badu.

k) Finantza-errenta, baldin eta kontratuan zehazten ez bada operazioa amaitzean ondasuna erosi beharra dagoela. Bestalde, ez dira diruz lagunduko errentatzailearen marjina, interesak birfinantzatzeko kostuak, gastu orokorrak eta aseguramendu-gastuak.

4.– Dirulaguntza jaso dezaketen gastuetan, erosketa-kostua inoiz ez da izango merkatuko balioa baino handiagoa. Kostuen moderazioa ziurtatzeko, lege hau beteko da: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa; horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Kontratu txikien kasuan, eta Landa Garapeneko Elkarleen kasuan zenbatekoa edozein dela ere, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu, gutxienez, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, salbu eta obra, zerbitzu edo ondasun horien ezaugarri bereziengatik merkatuan ez badago halakorik egin, eman edo hornitzeko entitate nahikorik edota dirulaguntza eman aurretik egiten bada gastua.

Aurkezturiko eskaintzen artean aukeratzeko, zeinak justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskabidean sartu behar diren, efizientzia eta ekonomiaren irizpideak erabiliko dira. Ez bada eskaintza merkeena aukeratzeko, egindako aukera espresuki justifikatu beharko da memoria batean.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoarekin bat etorriz nahitaezkoa bada eskaintza batzuk eskatzea, eta ez badira horiek aurkeztzen, edo eskaintza merkeena ez den bat aukeratzeko bada aukeraketa hori behar bezala justifikatu gabe, ondasun edo zerbitzuaren peritutasazio bat eskatu ahal izango du Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak, eta onuradunak ordaindu beharko ditu horrek

eragiten dituen gastuak. Halako kasuetan, bi balio hauetatik txikiena kontuan hartuz kalkulatu da dirulaguntza: onuradunak adierazitako balioa edo tasazioaren ondoriozkoa.

5.– Ondasun inbentariagarriak erosi, eraiki, birgaitu eta hobetzeko kasuetan, arau hauek bete behar dira:

a) Onuradunak ondasunak dirulaguntzaren helburu zehatzerako erabili beharko ditu. Erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, epe hori bost urtekoa izango da, eta, gainerako ondasunen kasuan, bi urtekoa. Erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunak direnean, eskrituran jaso beharko da inguruabar hori eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Datu horiek dagokion erregistro publikoan inskribatu beharko dira.

b) Aurreko letran aipatutako helburuzko betebeharra ez betetzeak, zeina betiere gertatuko baita ondasunaren besterentzearekin edo kargarekin, dirua organo emaileari itzuli beharra ekarriko du berekin, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen III. tituluaren ezarritako eran. Ondorioz, dirua organo emaileari itzultzeari atxikita geratuko da ondasuna, edozein izanda ere ondasun horren edukitzailea, salbu eta erregistroko fede publikoak babesten duen hirugarren bat bada edukitzaile hori edo justifikatzen bada ondasunak fede onez eta bidezko tituluz eskuratu direla edo, ondasun higigarri inskribaezinen kasuan, merkataritza- edo industria-establezimendu batean eskuratu direla.

6.– Honako egoera hauek gertatzen direnean, ez da ez-betetzetzat emango aurreko apartatuko helburuzko betebeharra:

a) Erregistro publiko batean inskribatu ezin diren ondasunen kasuan, ondasun horien ordezkari dirulaguntzak zeukan xedea baldintza analogoetan betetzeko balio duten beste ondasun batzuk inskribatzea, eta erabilera horri eustea horretarako ezarritako aldiak iraun bitartean; betiere dirulaguntzen administrazio emaileak baimendu behar du ordezte hori.

b) Erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, administrazio emaileak, ebazpen arrazoitu baten bidez, baimentzen duenean ondasunaren erabilera aldatzea edo ondasuna besterendu edo kargatzea. Kasu horretan, ondasuna eskuratzen duenak hartuko du bere gain helburuzko betebeharra gainerako denborarako; eta, helburu hori bete ezean, baita dirulaguntza organo emaileari berreskuratzeke betebeharra ere.

6. oinarria.– Finantzaketa.

1.– Gehienez ere, 9.170.052 euro bideratuko dira agindu honetan jasotako laguntzak finantzatzerako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura emango dira, Batzordeak 2023-2027 aldiko NPEPEn onartutako finantzaketa osagarri gehigarri gisa.

Honela banatuko dira, ekitaldi bakoitzean, deialdiari lotutako baliabide ekonomikoak (9.170.052 euro): 4.585.036 euro 2025eko ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 4.585.036 euro, 2026ko ekitaldiko konpromiso-kredituari.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko guztizko zenbatekoa % 40 handitu ahal izango da. Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak emango du handitze horren berri, ebazpen baten bidez, eta ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Argitalpen horrek, baina, ez du eragingo eskabide berriak aurkezteko epea hastea, ezta ebazteko beste epe bat hastea ere.

7. oinarria.– Onuradun izateko debekuak.

1.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluari jarraikiz, ezingo dira onuradun izan inguruabar hauetako edozeinetan dauden entitateak:

a) Epai irmo bidez, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorra jaso

izana edo prebarikazio, eroskeria, diru publikoen erabilera bidegabea, influentzia-trafiko, iruzur eta ordainarazpen ilegal edo hirigintza-delituak direla-eta zigorra jaso izana.

b) Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaera egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratu izatea, hartzekodunen konkurtsoan deklaratu egotea (salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu), esku-hartze judizialaren menpe egotea edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik.

c) Kausaren batean errudun deklaratu izateagatik administrazioarekin egindako kontraturen bat irmo suntsiaraztea eragin ez izana.

d) Lege hauetan jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean egotea: 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzkoa eta 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituenak. Halaber, ez izatea Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko kargurik, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako zehaztapenen arabera.

e) Egunean ez izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenen bidez ezarritakoak.

f) Egunean ez izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritako baldintzetan (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

g) Ebazpen irmo baten bidez, dirulaguntzak jasotzeko aukera galtzea dakarren zigorren bat izatea. Zehazki, ezingo du dirulaguntzen onuradun izan sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penala jaso duen pertsonak, kasuan kasuko zehapenean ezarritako aldian.

h) Zigortuta egotea Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, zuzenketa-neurri egokiak hartu eta zehapena ordaindu arte.

i) Desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota bete ez izana, hura betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla frogatu gabe.

j) LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatu izana, konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea barne.

k) Berreskuratze-agindu baten mende egotea, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat lege kanpoko eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

l) Gainfinantzaketarik ez egiteko konpromisoa adierazi ez izana.

2.– Artikulu honen 1. apartatuaren b), d), e), f) eta j) letretan eta 2., 3. eta 4. apartatuetan jaso diren debekuak automatikoki hartuko dira aintzat, eta bere horretan iraungo dute kasu bakoitzean zehaztutako egoerek irauten duten bitartean.

3.– 1. paragrafoko g) letran jasotako debekua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera ezarriko da. Agindu hori, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da.

4.– Artikulu honen 1. apartatuaren a), h) eta i) letretan jaso diren debekuak automatikoki hartuko dira aintzat. Epai edo ebazpen irmoak zehaztuko du debekuaren irismena. Halakorik ez badago, irismena araudiz zehaztutako prozeduraren bidez ezarriko da, eta ezingo da bost urtetik gorakoa izan, debekua ez bada epai irmo baten ondoriozkoa.

5.– Artikulu honen 1. apartatuaren c) lettran jasota dagoen debekua aintzat hartzeko eta haren irismena zehazteko, sektore publikoko kontratazioa erregulatzen duen arautegiak ezarritakoaren arabera jokatu da.

6.– Eskatzaileek, dirulaguntza emateko proposamena jaso baino lehen, egiaztatu beharko dute zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela. Betebehar horri eutsi beharko zaio, gutxienez laguntzaren edo dirulaguntzaren azken ordainketa egiaztatzen den unera arte. Betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko, zerga-organo eskudunek edo Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako administrazio-ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko dira. Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritzak, elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, zuzenean eskatuko dizkie dokumentu horiek organo eskudunei. Entitate interesdunak uko eginez gero, bere kabuz aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.

7.– Onuradun izatea galarazten duen debekurik ez dutela frogatzeko –artikulu honen 1. paragrafoan adierazten dira debekuak–, bide hauek dituzte entitateek: lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak, betiere Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan xedatutakoaren arabera; edo, bestela, ziurtagiri administratiboa, kasuaren arabera. Agiri hori agintari eskudunak egiterik ez badu, haren ordezkari Administrazio agintari edo notario publiko baten aurrean egindako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkez daiteke.

8. oinarria.– Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

1.– Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendariari zuzenduko zaizkio laguntza-eskabideak. Eskabide horretan sartuko dira 3. apartatuan aurreikusitako eredu normalizatua, agindu honen bidez onartua, eta 7. apartatuan eskatzen den dokumentazioa.

2.– Eskabideak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren goitza elektronikoan sartuta, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1028211>

3.– Eskabideak aurkezteko, inprimaki-eredu normalizatua erabiliko da, aipatutako helbidean eskuragarri dagoena:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1028211>

4.– Eskabidearen osteko izapideak helbide honetan egingo dira:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, ordezkaritza egiaztatu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Ildo horretan, eta agindu honen esparruan, ordezkaritza egiaztatuta dago baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ordezkarien erregistro elektronikoan inskribatuta badago (<https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>). Ordezkaritza erregistro horretan inskribatuta ez badago, ordezkaritza egiaztatzeko, borondatezko ordezkaritza emateko inprimaki normalizatua bete behar da (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurklaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>), edo zuzenbidean onartutako beste edozein modutan egiaztatu beharko da.

6.– Eredun normalizatuak, agindu honen bidez onartzen denak, informazio hau izango du:

a) Identifikazio-datuak.

b) Hurrengo apartatuko k) apartatuan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ezin den kasuetan, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, administrazio-agintaritza edo notario publiko baten aurrean egin. Adierazpen horretan, azaldu beharko da eskatzailea ez dagoela aurreko oinarriaren 1. apartatuko debekuetako ezeinen mende.

c) Proiektuaren informazioa, agindu honen III. eranskineko ereduaren arabera egin. Bertan jasoko dira proiektuaren deskribapena eta baloratu behar diren puntu guztiak, eta informazio hori jasotzen duten akordioak eta ziurtagiriak ere erantsi beharko dira. Jasotako alderdiak bakarrik hartuko dira kontuan.

7.– Era berean, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Hirugarrenen alta-agiria, azken bost urteetan Eusko Jaurlaritzari beste laguntzarik eskatu ez zaion kasuetan, edo emandakoa aldatu nahi denean. Elektronikoki izapidetu ahal izango da, dagokion zerbitzuaren bidez. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egoitza elektronikoan dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datu-aldaketa/web01-tramite/eu/> Gainerako izapideetarako bezala, izapidetze elektronikora behartuta dauden pertsonak eta entitateek hirugarrenaren alta lortzeko erabili beharko dute zerbitzu hori. Pertsona juridikoa bada, ahalordetze-ekritura, hala badagokio, eta entitatearen eratze-ekrituraren eta estatutuen kopia, dagokion erregistroan zigilatuta. Laguntza emanez gero, hura ordaintzeko, beharrezkoa izango da inskribatuta egotea Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan.

b) Eskatzailearen ordezkari izatea egiaztatzen duen agiria, hala behar bada.

c) Proiektuak zerbitzu baten kudeaketa egin beharra badakar, Kudeaketa Plana aurkeztu beharko da, eta, horren barruan, gutxienez, puntu hauek azaldu beharko dira:

i) Diru-sarrerak eta gastuen aurrekontua.

ii) Irekitzeko eta ixteko ordutegiak.

iii) Erabiltzaileek zerbitzua eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzak.

d) Aurrekontuak, proformako fakturak edo fakturak. Ez dira onartuko 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulkitako aurrekontuak edo proformako fakturak, ezta 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulkitako fakturak ere. Kontratu txikien kasuan, gutxienez hiru eskaintza eskatuko dituen kontratazio-organoak, eta horiek espedientean sartuko dira hautatutako eskaintzaren justifikazioarekin batera, proposamen ekonomiko abantailatsuena ez bada.

e) Aurrekontuen edo fakturen laburpen-taula, web-orri honetan eskuragarri dagoen ereduaren arabera:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1028211>

f) Eraikuntza- edo birgaitze-lanak egin behar badira, proiektu tekniko bat behar den ala ez justifikatuko duen udal-ziurtagiri bat aurkeztu beharko da. Proiektu teknikorik, memoriarik edo balioztatutako zerrendarik –aurrekontua barne, egin beharreko gastua behar bezala xehakaturik duena– behar ez bada, argi eta garbi adierazi beharko da obra gauzatzeko kostua eta hari dagokion BEZa. Proiektu teknikoa, oinarritzko proiektua edo gauzatzeko proiektua behar bada.

g) Eraikuntza- edo birgaitze-lanak egin behar badira, lan horiek gauzatzeko behar diren baimenak eta lizentziak aurkeztu beharko dira, edo, bestela, aldeko hirigintza-txostena.

h) Oinarrizko azpiegiturak konpondu/ordeztauz gero, eskumena duen maila teknikoko hiuragarren batek egindako txostena, dagokion zerbitzua ematen jarraitzeko beharra egiaztatzen duena.

i) Proiektua gauzatuko den lursailen edo higiezinaren jabetza, gozamina, errentamendua edo prekariora egiaztatzeko dokumentazioa.

j) Dirulaguntza proiektu baten fase baterako eskatzen bada, memoria bat erantsi beharko da, non fase bakoitza egiteko aurreikusitako datak zehaztuko baitira, hasiera-data eta amaiera-data adierazita, baita fase bakoitzean egin beharreko jarduketak, helburuak eta proiektuaren fase bakoitzeko gastu aurrekusiaren kuantifikazioa ere, aurrekontuan sartutako kontzeptuen eta kopuruen arabera.

k) Lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak, Herriarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan xedatutakoaren arabera; edo, bestela, ziurtagiri administratiboa, kasua zein den. Ziurtagiri horrekin egiaztatu beharko da ez dagoela 7. oinarriko 1. apartatuko debekuetako ezeinen mende.

l) Proiektua baloratzeko garrantzitsua izan daitekeen beste edozein dokumentazio edo informazio.

8.– Dirulaguntza-eskabidea aurkezteak esan nahi du eskatzaileak baimena ematen diola landa-garapenaren arloko eskumena duen zuzendaritzari zuzenean eskura ditzan beste edozein administrazio publikok egindako agiri guztiak, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluko 2. paragrafoan.

9.– Ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoa aplikatuz (herriarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa), eskatzaileek administrazio honetan edo beste edozein administrazio publikotan aurkeztu badute eskatutako dokumentazioa, eta berariaz adierazten badute ez dela aldaketarik izan, ez dute dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik. Hala ere, dokumentu horiek noiz eta zer administrazio-organotan aurkeztu diren adierazi beharko dute. Administrazioak kontsultatu, bildu eta egiaztatuko ditu prozedurak eskatzen dituen datu edo agiriak, eta ez da interesdunen baimenik eskatuko Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 72.1 artikuluan ezarritako kasuetan.

Hala ere, interesdunek aurka egin ahal izango dute. Horrelakoetan, interesdunak berariaz alegatu beharko ditu aurka egitea eragin duten arrazoiak, eta tratamenduaren arduradunak haztatuko ditu. Interesdunak tratamenduari aurka egiten diola adierazten badu, dokumentuak aurkeztu beharko ditu, hargatik eragotzi gabe eskabidearen hartzaile den organoaren egiaztatze-ahalak.

10.– Eskatzaile bakoitzak aukera izango du proiektu bat baino gehiago aurkezteko, baina lehentasuna emango zaio puntuazio handiena lortzen duenari. Geldikirik izanez gero soilik hartuko da aintzat puntuazio-hurrenkeraren arabera diruz lagundu daitekeen hurrengo proiektua. Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, kasuan kasuko entitateak Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritzaren eskariz adierazten duena hautatuko da.

11.– Hilabetekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak betekizun guztiak betetzen ez baditu, interesdunari jakinaraziko zaio hamar eguneko epea duela hutsa zuzentzeko edo beharrezko diren agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio, horrela egin ezean, atzera egin duela joko dela, hirugarrenaren altari dagokionez izan ezik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legaren 21. artikuluan ezarritako moduan emango den ebazpen baten bitartez.

12.– Nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu daitezke laguntza-eskabidea eta eskatutako dokumentazioa. Era berean, entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da eskabidea eskatu ondoko jarduketetan eta prozedurak irauten duen bitartean, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.

13.– Aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertu, ebaluatu eta eskabidea izapidetzeko beharrezko iritzitako bestelako argibide edota agiri osagarriak eskatu ahal izango zaizkio eskatzaileari.

9. oinarria.– Laguntzen organo kudeatzailea eta laguntzak emateko prozedura.

1.– Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritzari dagokio prozedura hau kudeatzea. Horretaz gain, txosten bat egin beharko du, jasota utziz eskura duen informaziotik ondorioztatzen dela onuradunek laguntzak eskuratzeko behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Txosten hori ebazteko eskumena duen organoari helaraziko zaio.

2.– Deialdi hau norgehiagoka-prozeduraren bidez ebatziko da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Prozedura horretan, aurkeztutako eskabideak konparatuta, haien arteko hurrenkera ezarriko da, 10. oinarrian ezarritako irizpideak aplikatu ondoren.

10. oinarria.– Balorazio-batzordea eta irizpideak.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, hiru kide izango dituen, hirurak ere Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritzako teknikari-taldeko kideak, zuzendaritza horretako titularrak ebazpen bidez izendatuak, genero-ordezkaritza zainduta. Batzorde horren jardunean, behar diren neurriak hartuko dira eskaeren balorazioan parte hartzen duten pertsona guztien interes-gatazkak saihesteko.

2.– Ebazpenean zehaztuko da zein izango den batzordeko idazkaria eta zein batzordeburua.

3.– Bere eginkizuna betetzeko, balorazio-batzordeak egokitzen jotzen dituen behar beste aditu deitu ditzake aholku ematera.

4.– Honako taula honetako irizpideen arabera baloratuko dira proiektuak, eta, horretarako, proiektua baloratzeko memorian bildutako datuak eta informazioa bakarrik hartuko dira aintzat, bai eta dokumentazio bidez frogatutakoak ere, hala dagokionean.

| Irizpideak eta gehieneko puntuazioa                         | Azpi-irizpideak/oharrak                                                                                                                                                  | Deskribapena                                                                          | Puntuak |
|-------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|---------|
| Zaurgarritasun-maila (20 puntu)                             | Arreta bereziko eremuak (ABE) ZM1 zaurgarritasun-mailarekin bat datoz. Partzoneriek ZM2 zaurgarritasun-maila izango dute, eta hiri-entitateen eremu urbanizaezinek, ZM4. | ABE                                                                                   | 20      |
|                                                             |                                                                                                                                                                          | ZM2                                                                                   | 12      |
|                                                             |                                                                                                                                                                          | ZM3                                                                                   | 8       |
|                                                             |                                                                                                                                                                          | ZM4                                                                                   | 5       |
| Eremuaren garapen-maila*, proiektuari dagokionez (15 puntu) | Proiektu berriak                                                                                                                                                         | Ez badago beste antzeko proiekturik                                                   | 15      |
|                                                             |                                                                                                                                                                          | Badira antzeko beste proiektu batzuk, baina oraindik ere gehiago sartzeko aukera dago | 10      |
|                                                             |                                                                                                                                                                          | Beharra eta/edo aukera aseta badaude                                                  | 0       |

| Irizpideak eta gehieneko puntuazioa                                           | Azpi-irizpideak/oharrak                                                                                                                                                | Deskribapena                                                                                                                      | Puntuak |
|-------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|
| Eremuaren garapen-maila*, proiektuari dagokionez (15 puntu)                   | Hobekuntzak                                                                                                                                                            | Hobekuntza beharrezkoa bada zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzeko                                                                | 15      |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | Hobekuntza nabarmena bada                                                                                                         | 10      |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | Hobekuntzak ez badu baldintzatzen zerbitzua bera                                                                                  | 0       |
| Proiektuaren bideragarritasun tekniko-ekonomikoa eta finantzarioa (15 puntu). | Honako hauek osatzen duten finantzaketa: funts propioak, beste laguntzak batzuk, emandako maileguak eta abar.                                                          | Finantzaketa > % 60                                                                                                               | 15      |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | % 30 < Finantzaketa ≤ % 60                                                                                                        | 10      |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | Finantzaketa ≤ % 30                                                                                                               | 5       |
| Ingurumenarekiko konpromiso-maila (5 puntu)                                   | Kontuan hartuko dira ingurumena errespetatzen duten materialen erabilera, aurrezpena, jasagarritasuna eta efizientzia energetikoa eta hondakinen kudeaketa eraginkorra | Handia                                                                                                                            | 5       |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | Ertaina                                                                                                                           | 3       |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | Txikia                                                                                                                            | 0       |
| Irismena (8 puntu)                                                            | Ukitutako landa-eremuko jarduera ekonomikoei ematen die zerbitzua proiektuak                                                                                           | Ukitutako landa-eremuko nekazaritza-ustategien biziraupena baldintzatzen duten funtsezko hornidurak banatzeko sistema efizienteak | 8       |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | Ukitutako landa-eremuko jarduera ekonomikoen biziraupena baldintzatzen duten funtsezko hornidurak banatzeko sistema efizienteak   | 6       |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | Ukitutako landa-eremuko jarduera ekonomikoei zerbitzua ematen dieten funtsezko hornidurak banatzeko sistema efizienteak.          | 4       |
| Entitate sustatzailea. (25 puntu)                                             | Berme ekonomikoa: proiektua egiteko aurrekontu-partida izatearen ziurtagiri bat dago, eskuragarri dagoen finantzaketa egiaztatzen duena (10 puntu)                     | Aurrekontu-partidaren gaikuntza egiaztatzen du                                                                                    | 10      |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | Ez du aurrekontu-partidaren gaikuntza egiaztatzen                                                                                 | 0       |
|                                                                               | Proiektuaren gauzatze-egoera (15 puntu).                                                                                                                               | Gauzatuta/amaituta                                                                                                                | 15      |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | Hasita                                                                                                                            | 12      |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | Esleitua                                                                                                                          | 10      |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | Lizitatuta                                                                                                                        | 6       |
| Eskatutako laguntzaren zenbatekoa (12 puntu)                                  | Entitate eskatzaileak eskabidean jasotako «eskatutako gehieneko laguntzaren» (EGL) zenbatekoa (eurotan) hartuko da kontuan                                             | EGL ≤ 50.000                                                                                                                      | 12      |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | 50.000 < EGL ≤ 100.000                                                                                                            | 9       |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | 100.000 < EGL ≤ 200.000                                                                                                           | 6       |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | 200.000 < EGL ≤ 300.000                                                                                                           | 3       |
|                                                                               |                                                                                                                                                                        | EGL > 300.000                                                                                                                     | 0       |

\*Aginduaren hirugarren oinarriaren 1. apartatuan –a), b), d) eta g) apartatuak– jasotako diruz lagun daitezkeen jarduketetarako, irizpidea entitate-mailan ebaluatuko da. f) apartatuan jasota-

koetarako toki-/udal-mailan eta c), e) eta h) apartatuetan jasotakoetarako, eskualde-mailan.

5.– Proiektuek, hautatuak izateko, gutxienez 50 puntu lortu behar dituzte. Proiektu bik edo gehiagok puntuazio bera lortzen badute, «zaugarritasun-maila» handiena duena lehenetsiko da, eta, berdinketak badirau, «Entitate sustatzailea» irizpidean puntuazio handiena lortu duena.

11. oinarria.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– Lortutako puntuazioaren arabera, proiektu bakoitzari esleitu beharreko laguntzaren ehunekoa honela gauzatuko da:

| Puntuak | Laguntzaren % | Puntuak | Laguntzaren % | Puntuak | Laguntzaren % | Puntuak | Laguntzaren % |
|---------|---------------|---------|---------------|---------|---------------|---------|---------------|
| 100     | 80            | 87      | 70            | 74      | 59            | 61      | 49            |
| 99      | 79            | 86      | 69            | 73      | 58            | 60      | 48            |
| 98      | 78            | 85      | 68            | 72      | 58            | 59      | 47            |
| 97      | 78            | 84      | 67            | 71      | 57            | 58      | 46            |
| 96      | 77            | 83      | 66            | 70      | 56            | 57      | 46            |
| 95      | 76            | 82      | 66            | 69      | 55            | 56      | 45            |
| 94      | 75            | 81      | 65            | 68      | 54            | 55      | 44            |
| 93      | 74            | 80      | 64            | 67      | 54            | 54      | 43            |
| 92      | 74            | 79      | 63            | 66      | 53            | 53      | 42            |
| 91      | 73            | 78      | 62            | 65      | 52            | 52      | 42            |
| 90      | 72            | 77      | 62            | 64      | 51            | 51      | 41            |
| 89      | 71            | 76      | 61            | 63      | 50            | 50      | 40            |
| 88      | 70            | 75      | 60            | 62      | 50            |         |               |

2.– Deialdi honetan proiektu bakoitzeko emandako laguntza 300.000 eurokoa izango da gehienez ere.

12. oinarria.– Balorazio-batzordearen txostena.

1.– Balorazio-batzordeak proiektuak aztertuko ditu, eta, adierazitako irizpideei jarraituz, puntuak esleitu. Ondoren, zenbatekoak kalkulatu ditu, lortutako puntuazioaren arabera.

2.– Ondoren, txosten bat egingo du, non zehaztuko baita egindako ebaluazioaren emaitza. Txosten horrek barne hartu beharko du zerrenda bat, beheranzko hurrenkeran ordenatua, jarduketa-proiektu bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera, eta horri jarraituz emango dira laguntzak, harik eta funtsak agortu arte. Arau hori aplikatuz ateratzen den zenbatekoa laguntza-eskabidean adierazitako gehieneko zenbatekoa baino handiagoa bada, azken hori adieraziko da.

3.– Aurrekoa aplikatu ondoren, aurrekontu-zuzkidura badago, baina hori txikiagoa baldin bada aurrekonturik ez izateagatik ezestea proposatutako espedienteen artean puntuazio handiena duenarentzat aurreikusitako laguntza baino, batzordeak, sobera geratutako zenbatekoa oinarri hartuta, laguntza murritztea erabaki dezake, esleitu gabe dagoen aurrekontu-zuzkiduraren proportzioan. Hori ebaketa-espedientea delakoa izango da.

4.– Halakoetan, horren berri emango zaio entitate onuradun izan daitekeenari, lortutako puntuazioa eta eman beharreko laguntzaren zenbateko berria adierazita. Entitate interesdunak ez badu onarpena ematen 48 orduko epean, modu berean jokatuko da puntu gehien lortu dituen aurrekonturik ez izateagatik ezetsitako hurrengo espedientearekin.

5.– Balorazio-batzordeak, 10. oinarrian ezarritako esleipen-irizpideak aplikatuta, txosten bat egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuz. Txosten horretan, dirulaguntza zer eskatzaileri eman behar zaien zehaztuko da (honako hauek adierazita: identitatea, lortutako puntuazioa, diruz lagunduko den jarduketa eta dagokion zenbatekoa, gastu-kontzeptuen arabera banakatuta), bai eta zer eskabide ezetsi behar diren ere (horretarako arrazoiak adierazita). Txostenean, halaber, zerrenda ordenatu bat ere jaso ahal izango da, oinarri hauetan onuradun izateko ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak betetzen dituzten baina 6. oinarrian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik onartu ezin diren eta ukatu behar diren eskabide guztiekin, eta adierazi beharko da horietako bakoitzari zenbat puntu eman zaion aipatutako oinarrian aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera. Kasu horretan, entitate onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio dirulaguntza eman eta hiru hilabeteko epean, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak erabakiko du, beste deialdi bat egin beharrik gabe, dirulaguntza ematea puntuazioaren arabera hurrena dagoen eskatzaileari edo eskatzaileei, betiere onuradunen batek uko eginda kreditu nahikoa liberatu bada ukatutako eskabideetako bati gutxienez erantzuteko.

#### 13. oinarria.– Behin-behineko ebazpen-proposamena.

1.– Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendariak, espediente eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamena interesdunei jakinaraziko zaie, eta hamar eguneko epea emango zaie, alegazioak egiteko, kasu hauetan:

a) Interesdunek azaldutakoez bestelako egitate, alegazio eta frogak agertzen dira prozeduran.

b) Aurreko oinarriko 3. apartatuan jasotako egoera.

2.– Aurreko apartatuan adierazitako kasuez kanpo, egindako ebazpen-proposamena behin betikoa izango da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21.3 artikuluari jarraikiz.

#### 14. oinarria.– Behin betiko ebazpen-proposamena.

1.– Alegazioak aztertuta, halakorik balego, eta ondorengo apartatuetan adierazten diren alderdiak egiaztatuta, Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendariak behin betiko ebazpen-proposamena emango du, dirulaguntzen hartzaile izateko proposatzen den eskatzailea edo eskatzaile zerrenda adierazita, bai eta dirulaguntzen zenbatekoa ere. Halaber, ebaluazioa eta hura egiteko erabili diren balorazio-irizpideak zehaztuko ditu, hala dagokionean.

2.– Eskatzaileek, dirulaguntza emateko proposamena jaso baino lehen, egiaztatu beharko dute dirulaguntzak itzultzeko betekizunak betetzen dituztela. Egiaztapen hori Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 7. artikulua arabera egingo da. Agindu hori, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da. Egiaztatu beharko dute, halaber, egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek automatikoki egiaztatuko dute onuradunen IFK. Hala ere, entitate eskatzaileak berriaz egin ahal izango dio uko egiaztatze horri, baina, orduan, adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

3.– Dirulaguntzak emateko espedientean Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritzaren txostena egongo da, eta txosten horretan jasota geratuko da organo kudeatzailearen esku dagoen informazioaren arabera onuradunek betekizun guztiak betetzen dituztela dirulaguntzak jasotzeko.

4.– Behin betiko ebazpen-proposamena Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeari helaraziko zaio.

5.– Behin-behineko eta behin betiko ebazpen-proposamenek ez diete administrazio-arloko eskubiderik ekartzen onuradun izateko proposatuta daudenei.

15. oinarria.– Prozedura ebaztea, errekurtsioak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publikotasuna.

1.– Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeari dagokio deialdia ebaztea, Landa Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak proposatuta. Hala ere, aurretik, txosten bat egin beharko da, non jasoko baita zuzendaritzaren esku dagoen informaziotik ondorioztatzen dela onuradun gisa proposatutako entitateek dirulaguntzak jasotzeko behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Ebazpenak barnean hartu beharko du Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.3 artikuluan aurreikusitakoa:

a) Onartutako eskabideen kasuan:

i) Entitate onuradunen izenak.

ii) Diruz lagundutako proiektua.

iii) Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa.

iv) Diruz lagundutako zenbatekoa, urteko kuoten, eta ordaintzeko moduen eta epeen arabera.

v) Aurreikusitako jarduerak egiteko epea.

vi) Onuradunari honako dokumentazio hau aurkezteko betebeharra ezartzen dion klausula bat: proiektua egiteko beharrezkoak diren lizentziak edo baimenak egiaztatuko dituen dokumentazioa.

vii) Deialdirako esteka egoitza elektronikoan.

b) Ezetsitako eskabideei dagokienez:

i) Entitate eskatzaileen izena.

ii) Eskabidea ezesteko arrazoiak.

2.– Prozedura ebazteko eta ebatzitakoa jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igaro eta hurrengo 3. apartatuan ezarritako argitalpena egin ez bada, entitate interesdunek ulertu behar dute dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, oinarri honen 5. apartatuan adierazitako gora jotzeko administrazio-errekurtsioa jartzearen ondorioetarako.

3.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta argitalpenak jakinarazpen-ondorioak izango ditu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluari jarraikiz. Dena den, interesdun guztiei banaka

jakinaraziko zaie ebazpena osorik; horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio interesdunak Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo edozein unetan, administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikularekin bat etorriz.

16. oinarria.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Betebehar hauek izango dituzte agindu honetan araututako laguntzen entitate onuradunek:

1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, onuradunek ez badiote berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten laguntza eman izanaren jakinarazpena hartu eta hamabost egunean, onartu egiten dutela ulertuko da.

2.– Eman den helburu zehatzerako erabiltzea laguntza.

3.– Diruz laguntzen den gastua egin behar dute, laguntza emateko ebazpenak eta, hala badagokio, laguntza luzatzeko ebazpenak xedatzen duen epean.

4.– Diruz lagundutako inbertsio eta gastuei 5 urtez eutsi behar diete, gutxienez, gauzatzen direnetik aurrera; epe horretan ezingo dira ez besterendu ez amortizatu, ez eta dirulaguntzen xedea ez den beste ezertarako erabili ere. Ondorio horietarako, eta ondasun higiezinak eraiki, eskuratu edo birgaitzen diren kasuan, onuradunak dirulaguntza ematen dion administrazio-ziurtagiria aurkeztu beharko du dagokion jabetza-erregistroan. Erregistro horretan, agiri hori ikusita, jabaria erabiltzeko mugaren erregistro-idazpena egingo da, hipoteka-legeriarekin bat etorriz.

5.– Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari jakinarazi behar diote inbertsio edo gastu osoa edo inbertsio edo gastuaren zati bat egin dutela, eta haren esku utzi behar dituzte diruz laguntzen diren inbertsioak eta gastuak egin dituztela egiaztatzeko beharrezko agiri guztiak.

6.– Onuradunek behar den bezala zabaldu behar dute izaera publikoa duela jardueraren finantzaketak, gardentasunari buruzko legedian ezarritakoari jarraikiz. Informazioari, publizitateari eta ikusgarritasunari dagokienez, NPEPERen laguntzaren berri eman beharko dute, honela:

a) Entitate onuradunaren webgune ofizialean, halakorik edukiz gero, eta sare sozialetako kontu ofizialetan jardunaren deskribapen laburra egingo dute, laguntzaren mailaren proportzioan, eta helburuak eta emaitzak adierazita;

b) Herritarrei edo parte-hartzaileei zuzendutako eta jardunaren betearazpenarekin lotutako komunikazio-arloko agiri eta materialetan, adierazpen bat jarriko dute erraz ikusteko moduko toki batean;

c) Azpiegiturak edo eraikuntza-jarduerak finantzatzeko operazioetan, guztizko gastu publikoa 50.000 eurotik gorakoa bada, proiektuari buruzko informazioa ematen duen plaka bat edo pantaila elektronikoa bat jarriko dute. Gastu publikoa 10.000 eurotik gorakoa bada, gutxienez A3 tamainako kartel bat edo tamaina bereko pantaila elektronikoa bat jarriko dute jendeak ikusteko moduko leku batean, operazioari buruzko informazioarekin eta EBren finantza-laguntza jaso dela nabarmenduta.

7.– Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak informaziorik eskatzen badiete emandako laguntzak nola erabiltzen dituzten eta diruz laguntzen diren helburuak lortzen dituzten kontrolatzeko, eman egin behar diete.

8.– Idatziz jakinaraziko diote Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari, baldin eta edozein administrazioari edo ente publiko eta pribaturi xede bererako eskatutako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskatu eta jaso badute. Horretarako, hamabost egun naturaleko epea izango dute, egoera horren berri izan den egunetik hasita, eta, edonola ere, jasotako funtsak erabili direla justifikatu aurretik.

9.– Eskatzaileek jakinarazi behar dute diruz laguntzen den gastu bera ordaintzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu dioten administrazio publiko edo ente publiko edo pribaturen bati, bai eta eskuratu duten ala ez.

10.– Jasotako diru-funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gorde behar dituzte, agiri elektronikoak barne, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ekintzetan erabil baitaitezke.

11.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarren bat, objektiboa zein subjektiboa, aldatuz gero, horren berri eman behar diote idatziz Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari. Aldaketa horren berri izan eta hamabost egun naturaleko epean egin beharko da jakinarazpen hori, eta, edonola ere, jasotako funtsei eman zaien erabilera justifikatu baino lehen.

12.– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela egiaztatu beharko dute, harik eta dirulaguntzaren azken ordainketa egiaztatzen den arte. Alderdi hori automatikoki egiaztatuko dute Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek. Hala ere, entitate onuradunak berariaz egin ahal izango dio uko egiaztatze horri, baina, orduan, adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

13.– Dirulaguntzen araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14, 27 eta 42. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea.

17. oinarria.– Gauzatzeko epeak.

1.– Proiektuak 2024ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean gauzatu beharko dira. Ez dira deialdi honen xede izango ez 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako proiektuak, ez gastua 2026an soilik egitea aurreikusten dutenak.

2.– Salbuespen gisa, diruz lagundutako jarduketak egin eta amaitzeko epeari dagokionez, entitate onuradunari egotzi ezin zaizkion arrazoiak ematen direnean (horiek behar bezala frogatu beharko dira) eta inbertsioaren edo gastuaren muga-eguna amaitu baino 30 egun natural lehenago, gutxienez, idatzizko eskabidea egiten denean, Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendariak epe hori luzatu ahal izango du. Kasu horretan, dena den, epea ezin da izan hasieran emandakoa baino luzeagoa.

18. oinarria.– Laguntzen justifikazioa.

1.– Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritzak, organo kudeatzailea den aldetik, inbertsioa egin dela eta gastua eraginkorra dela egiaztatu eta ziurtatuko du, bai zuzenean, bai agiri bidez. Egiaztatze materialaren bidez ziurtatuko da egiaztatu beharreko ondasuna benetan badagoela, proiektura egokitzen dela, erabilgarria dela eta funtzionatzen duela, dokumentuetako justifikazioarekin bat datorrela, eta dirulaguntza jaso duten inbertsio edo gastuen arabera beharrezkoak diren beste egiaztapenak egingo dira.

2.– Inbertsioa edo gastua behar bezala egin direla egiaztatuko da honako hauen bidez:

a) Amaiera egiaztatzeko ziurtagiria, obren kasuan, edo, gainerako kasuetan, eginiko jarduketan justifikazio-memoria (laguntzaren xedea den proiektua bete izanari buruzko informazioarekin), dagozkion fakturekin batera.

b) Fakturak edo froga-balio bereko agiriak, eta ordainketen frogagiriak, laguntzaren onuradun den entitatearen izenean eginak. Finantza-errentamenduaren kasuan, eragiketa amaitzean ondasuna eskuratzeko betebeharra ezartzen duen kontratua. Horrekin batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, non zehaztuko baita fakturak eta gainerako justifikazio-agiriak ez direla aurkeztu diruz laguntzeko moduko beste programa batzuk justifikatzeko. Aitzitik, agiri horiek aurkeztu baldin badira diruz laguntzeko moduko beste programa batzuk justifikatzeko, zehaztu beharko da programak zein diren eta, faktura edo justifikazio-dokumentu bakoitzari dagokionez, zein den jasotako dirulaguntzaren portzentajea. Adierazpen hori eskabide-inprimakian jasoko da.

c) Fakturen eta ordainagirien laburpen-taula xehatua, honako datu hauek barne hartuz: fakturazioaren eta ordainketaren datak eta erreferentziak, enpresa hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta aplikatutako zergak. Taula hori egiteko, hemen eskuragarri dagoen eredua erabiliko da:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1028211>

d) Obrak egitearen ondoriozko gastuen kasuetan, eskumena duen maila teknikoko pertsona batek sinatutako obren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, obrak gauzatu direla frogatzeko.

3.– Kontratu txikiaren atalaseak gainditzen dituzten kontratuen kasuan, udalek idazkari-kontu-hartzaile kargua duen pertsonaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, edo gainerako toki-entitateek baliokidea den figura baten ziurtagiria, kontratazio publikoari buruzko araudia betetzeari buruzkoa, honako hauek aipatuta: aplikatutako araua, erabilitako prozedura, haren justifikazioa, eta kontratuaren argitalpena eta formalizazioa. Kontratu txikien kasuan, premia-txostena eta gastua onartzeko dokumentua aurkeztu beharko dira.

4.– Kudeaketa egokia eta oinarri honen 1. apartatuan aipatzen diren laguntzen ordainketa bermatzeko, justifikazio-agiriak aurkezteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, laguntza emateko ebazpenean ezarritako inbertsioaren edo gastuaren azken egunetik edo azken luzapenaren azken egunetik aurrera. Ezarritako epea luzatzea erabaki ahal izango du organo emaileak, epea bukatu baino lehen, baldin eta beste inoren eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Hori egiteko, baina, onuradunak egin beharko du epea luzatzeko eskaera, eta justifikatu egin beharko du justifikazioa epe barruan egitea ezinezko egiten duten arrazoiak daudela.

5.– Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritzak ikusten badu konpon daitezkeen akatsak daudela entitate onuradunak aurkeztutako justifikazioan, jakinaren gainean jarriko du onuraduna, eta epe bat emango dio akatsok zuzentzeko. Halaber, dokumentu gehigarria eskatu ahal izango du beharrezkoa baderitzo, betiera arrazoiak emanda.

19. oinarria.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Dirulaguntzaren ordainketa diruz lagundutako proiektua gauzatu dela eta benetan ordaindu dela justifikatu ondoren egingo da.

Aurrekoa gorabehera, konturako ordainketak edo zatikako ordainketak egin ahal izango dira; horrela, diruz lagundutako jarduketak gauzatu ahala ordainduko da dirulaguntza, zatika, eta justifikatutako gastuaren adinako zenbatekoa ordainduko da. Hau da, emandako dirulaguntzak diruz lagundutako proiektuaren kostuaren gainean dakarren edo duen ehunekoa justifikatutako gastuari aplikatuta ateratzen den zenbatekoaren baliokidea izango da ordainketaren zenbatekoa.

Urte bakoitzeko bi ordainketa egin ahal izango dira gehienez, entitate interesdunak eskatuta.

Konturako ordainketen gehieneko zenbatekoa, lehenengo urtean, laguntza emateko ebazpenean adierazitakoa izango da, kontuan hartuta agindu honetan jasotako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen banaketa.

2.– Dirulaguntzaren xede den proiektua ezarritako gehieneko epeetan egiten ez bada edo egiaztatzeko agiriak aurkezten ez badira, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da, betiere dagokion prozedura bideratu ondoren, eta entitate interesdunari entzunda.

3.– Ez da inolako ordainketarik egingo entitate onuradunak egunean ez baditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak edo itzulketa-ebazpen batek adierazita zordun bada.

## 20. oinarria.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Aldi berean beste edozein entitate publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak eta laguntzak lortuz gero, deialdi honen babesean emandako dirulaguntzaren zenbatekoa aldatu egingo da. Ondorio horietarako, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak behar den aldaketa-ebazpena emango du, eta, bertan, dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berriaren arabera doitu dira. Hala badagokio, itzulketa-prozedura abiaraziko da, xedapen hauetan aurreikusitakoari jarraituz: abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen ditu, eta, bestetik, horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen ditu) eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze abenduaren 21eko 20/2023 Legean.

2.– Baldin eta dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, onartutako proiektua ez bada gauzatzen aurreikusitako epeetan, eskabidearekin batera aurkeztutako proiektua aldatu edo birprogramatu egiten bada, baina proiektua ez bada funtsean aldatzen, eta agindu honetako gutxieneko eskakizunak betetzen badira eta laguntza helburu bererako erabiltzen bada, landa-garapenaren alorrean eskumena duen zuzendaritzari jakinarazi eta justifikatu beharko zaio aipatu aldaketa, idatziz, baina dirulaguntza emateko ebazpena ez da aldatuko.

Aitzitik, dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, onartutako proiektua ez bada aurreikusitako epeetan gauzatzen, eskabidearekin batera aurkeztutako proiektua aldatu edo birprogramatzen bada eta, horren guztiaren ondorioz, proiektua funtsean aldatzen bada, baina laguntza helburu bererako erabiltzen bada, aldaketa landa-garapenaren alorrean eskumena duen zuzendaritzari idatziz jakinarazi eta justifikatu beharko zaio, eta dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, dagokion aldaketa-ebazpena emango du Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak.

3.– Baldin eta diruz lagundutako jardueraren behin betiko eta benetako kostua onetsitako gastuaren aurrekontua (laguntza zehazteko baliatu zena) baino txikiagoa bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, dagokion proportzioan, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordearen likidazio-ebazpenaren bidez, eta, ondoren, dirulaguntzaren ehunekoa oinarri berriari aplikatuko zaio.

## 21. oinarria.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Laguntza eskatzen duen entitateak atzera egin ahal izango du bere eskabidean. Eskatutako laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi baino lehen egin beharko du atzera. Atzera egiteko, halaxe egin dela egiaztatzea ahalbidetzen duen edozein modu erabiliko da, eta Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendaria izango da, ebazpen bidez, atzera egite hori erabatu onartu eta prozedura bukatutzat joko duena entitate horri dagokionez.

2.– Emandako laguntzari uko egin ahal izango dio entitate onuradunak. Laguntza onartu ondoren eta gastua egiten bukatu aurretik egin ahal izango dio uko laguntzari, baldin eta Administrazioak ez badu inolako ordainketarik egin, betiere. Uko egiteko, hala egin dela jasota uzteko moduko edozein bitarteko erabil daiteke. Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak, ebazpen baten bidez, berariaz onartuko du uko-egite hori, eta prozedura bukatutzat joko du entitate horri dagokionez.

3.– Aurkeztutako uko-egitea ez da onartuko entitate interesdunari ez-betetzea deklaratzeko prozedura edo deialdi honen esparruan hasitako zehapen-prozedura bat hasi dela jakinarazi ondoren. Prozedura horrek aurrera jarraituko du ebatzi arte.

## 22. oinarria.– Ez-betetzeak.

1.– Entitate onuradunak ez badu betetzen agindu honetako betebeharren bat edo dirulaguntzak emateko ebazpenak ezartzen duen baldintzaren bat, ez badu proiektua partez betetzen (eta, horrela, laguntzaren xedea osorik hutsaltzen badu), edo dirulaguntza edo laguntza publikoak itzultzeraren behar duen egoeraren batean badago Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluekin bat etorriz, laguntza eman zuen organo eskudunak, ebazpen bidez, dirulaguntza jasotzeko eskubidea kenduko dio (partez edo erabat) onuradunari, eta, hala badagokio, aginduko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko hartu dituen laguntzak (guztia edo zati bat, proiektuaren betetze-mailarekiko modu proportzionalen) eta dirulaguntzen arloan aplikagarriak diren berandutze-interesak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuekin eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluekin bat. Aipatutako diruzenbateko horiek zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako. Zenbatekoa kalkulatzeko, itzulketa partziala egin behar den kasuetan, betetze-maila hartuko da kontuan, edo inbertsioen mantentzean pro rata temporis araua aplikatuko da.

2.– Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendaria izango organo eskuduna itzulketa-espedientea abiarazi eta izapidetzeko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40.1 artikuluan adierazitako deskontzentrazioaren arabera.

3.– Itzultze-prozedura arau-hauste administratiboak izan litezkeen gertakarien ondorioz hasi bada, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio gertakariok, dagokion zehapen-prozedura hasi dezan.

## 23. oinarria.– Bateragarritasunak.

1.– Hemen arautzen diren laguntzak ez dira estatu-laguntza, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen arabera, eta bateragarriak izango dira beste edozein administraziok edo ente publiko nahiz pribatuk, Europar Batasunak edo nazioarteko enteei helburu bererako emandakoekin. Nolanahi ere, dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da inola ere izan, bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin baturik, jardueraren amaierako kostua baino handiagoa. Gehiegizko finantzaketa kalkulatzeko, kontuan hartuko da dirulaguntza kalkulatzeko kontuan hartutako ehunekoa.

2.– Laguntza hauek bateraezinak dira Leader 2023-2027 programaren esparruan emandakoekin. Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek egiaztatuko dute bateraezintasunik dagoen ala ez, eta prozesutik kanpo utziko dituzte jada diruz lagundutako proiektuak.

## 24. oinarria.– Datu-babesa.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak datuak dagokien babes-mailarekin tratatuko ditu, betiere Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz.

Helbide honetan kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/037400-cap2-eu.shtml>

## II. ERANSKINA

## APLIKAZIO-ESPARRU GEOGRAFIKOA

| Entitatea                                                           | Zaugarritasun-maila |
|---------------------------------------------------------------------|---------------------|
| Abadiño Abadiño-Zelaieta                                            | 4                   |
| Abadiño Gaztelua                                                    | 3                   |
| Abadiño Gerediaga                                                   | 3                   |
| Abadiño Mendiola                                                    | 3                   |
| Abadiño Muntsaratz                                                  | 4                   |
| Abadiño Traña-Matiena Hiri-entitatea Urbanizaezina                  | 4                   |
| Abadiño Urkiola                                                     | 2                   |
| Abaltzisketa Abaltzisketa                                           | 3                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Abanto                            | 3                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Cotorrio                          | 3                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena El Campillo                       | 3                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Gallarta Hiri-entitatea Urbaezina | 4                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena La Balastera                      | 3                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena La Florida I                      | 3                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Las Calizas                       | 3                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Las Carreras                      | 4                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Las Cortes                        | 3                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Los Castaños                      | 3                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Murrieta                          | 3                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Picón                             | 3                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Putxeta                           | 3                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena San Pedro                         | 4                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Sanfuentes                        | 4                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Santa Juliana                     | 3                   |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Triano                            | 3                   |
| Aduna Aduna                                                         | 4                   |
| Agurain/Salvatierra Agurain/Salvatierra Hiri-entitatea Urbaezina    | 4                   |
| Agurain/Salvatierra Alangua                                         | 2                   |

| Entitatea                         | Zaugarritasun-maila |
|-----------------------------------|---------------------|
| Agurain/Salvatierra Arrizala      | 2                   |
| Agurain/Salvatierra Egileor       | 2                   |
| Agurain/Salvatierra Opakua        | 2                   |
| Aia Aia                           | 4                   |
| Aia Altzola                       | 2                   |
| Aia Andatza                       | 3                   |
| Aia Arratola Aldea                | 3                   |
| Aia Arrutiegia                    | 2                   |
| Aia Elkano                        | 2                   |
| Aia Etxetaballa                   | 2                   |
| Aia Iruretaegia                   | 2                   |
| Aia Kurpidea                      | 2                   |
| Aia Laurgain                      | 2                   |
| Aia Olaskoegia                    | 2                   |
| Aia Santio Erreka                 | 2                   |
| Aia Ubegun Industrigunea          | 3                   |
| Aia Urdaneta                      | 2                   |
| Aizarnazabal Aizarnazabal         | 4                   |
| Aizarnazabal Etxabe               | 3                   |
| Aizarnazabal Etxezarreta          | 4                   |
| Aizarnazabal Mugitzagaina         | 2                   |
| Aizarnazabal Saiatz               | 3                   |
| Aizarnazabal Zubialdea            | 3                   |
| Ajangiz Kanpantxu                 | 4                   |
| Ajangiz Mendieta                  | 4                   |
| Albiztur Albiztur                 | 3                   |
| Alegia Alegia                     | 4                   |
| Alegia Errotaldeia                | 4                   |
| Alegia Langaurrealdea             | 3                   |
| Alegría-Dulantzi Alegría-Dulantzi | 4                   |
| Alegría-Dulantzi Egileta          | 3                   |

| Entitatea                                            | Zaugarritasun-maila |
|------------------------------------------------------|---------------------|
| Alkiza Alkiza                                        | 3                   |
| Alonsotegi Alonsotegi                                | 4                   |
| Alonsotegi Arbuio                                    | 3                   |
| Alonsotegi Irauregi                                  | 3                   |
| Altzaga Altzaga                                      | 1                   |
| Altzo Altzo                                          | 3                   |
| Amezketeta Amezketeta                                | 4                   |
| Amezketeta Ergoiena                                  | 3                   |
| Amezketeta Ugarte                                    | 2                   |
| Amorebieta-Etxano Aldana                             | 3                   |
| Amorebieta-Etxano Amorebieta Hiri-entitatea Urbazina | 4                   |
| Amorebieta-Etxano Astepe                             | 4                   |
| Amorebieta-Etxano Autzagana                          | 3                   |
| Amorebieta-Etxano Bernagoitia                        | 2                   |
| Amorebieta-Etxano Boroa                              | 4                   |
| Amorebieta-Etxano Dúdea                              | 4                   |
| Amorebieta-Etxano Etxano                             | 4                   |
| Amorebieta-Etxano Euba                               | 4                   |
| Amorebieta-Etxano Oromiño                            | 2                   |
| Amoroto Elexalde                                     | 3                   |
| Amoroto Odiaga                                       | 2                   |
| Amoroto Ugaran                                       | 2                   |
| Amoroto Urrutia                                      | 2                   |
| Amurrio Aloria                                       | 2                   |
| Amurrio Amurrio Hiri-entitatea Urbazina              | 4                   |
| Amurrio Artomaña                                     | 2                   |
| Amurrio Baranbio                                     | 2                   |
| Amurrio Berganza-Onsoño-Aldama-Pardio-Mariaka        | 2                   |
| Amurrio Delika                                       | 2                   |
| Amurrio Larrinbe                                     | 4                   |
| Amurrio Lekamaña                                     | 3                   |

| Entitatea                             | Zaugarritasun-maila |
|---------------------------------------|---------------------|
| Amurrio Lezama                        | 3                   |
| Amurrio Saratxo                       | 2                   |
| Amurrio Tertanga                      | 2                   |
| Andoain Buruntza                      | 4                   |
| Andoain Goiburu                       | 4                   |
| Andoain Leizotz                       | 4                   |
| Andoain Sorabilla                     | 4                   |
| Anoeta Anoeta Hiri-entitatea Urbazina | 4                   |
| Antzuola Antzuola                     | 4                   |
| Antzuola Basalde                      | 3                   |
| Antzuola Galartza                     | 3                   |
| Antzuola Irimeogibarrena              | 2                   |
| Antzuola Irimeogigoena                | 2                   |
| Antzuola Lizarraga                    | 3                   |
| Antzuola Uzarraga                     | 3                   |
| Añana Atiega/Atiaga                   | 1                   |
| Añana Salinas de Añana/Gesaltza Añana | 1                   |
| Arakaldo Arakaldo                     | 1                   |
| Arama Arama                           | 4                   |
| Aramaio Arexola                       | 3                   |
| Aramaio Azkoaga                       | 3                   |
| Aramaio Barajuen                      | 3                   |
| Aramaio Etxaguen                      | 2                   |
| Aramaio Gantzaga                      | 2                   |
| Aramaio Ibarra                        | 4                   |
| Aramaio Oleta                         | 2                   |
| Aramaio Untzilla                      | 3                   |
| Aramaio Uribarri                      | 3                   |
| Arantzazu Arantzazugoit               | 3                   |
| Arantzazu Olarra                      | 3                   |
| Arantzazu Zelaia                      | 3                   |

| Entitatea                                   | Zaugarritasun-maila |
|---------------------------------------------|---------------------|
| Areatza Areatza                             | 4                   |
| Areatza Launtzain                           | 2                   |
| Areatza Uparan                              | 2                   |
| Aretxabaleta Aozaratza                      | 4                   |
| Aretxabaleta Apotzagaetxebarri              | 4                   |
| Aretxabaleta Areantza                       | 3                   |
| Aretxabaleta Arkarazo                       | 3                   |
| Aretxabaleta Galartza                       | 3                   |
| Aretxabaleta Goroeta                        | 3                   |
| Aretxabaleta Izurieta                       | 3                   |
| Aretxabaleta Larrino                        | 3                   |
| Aretxabaleta Oro                            | 4                   |
| Armiñón Armiñón                             | 1                   |
| Armiñón Estavillo                           | 1                   |
| Armiñón Lacorzana                           | 1                   |
| Arraia-Maeztu Aletxa                        | 1                   |
| Arraia-Maeztu Apellániz / Apilaiz           | 1                   |
| Arraia-Maeztu Arenaza/Areatza               | 1                   |
| Arraia-Maeztu Atauri                        | 1                   |
| Arraia-Maeztu Azazeta                       | 1                   |
| Arraia-Maeztu Cicujano/Zekuiano             | 1                   |
| Arraia-Maeztu Ibisate                       | 1                   |
| Arraia-Maeztu Korres                        | 1                   |
| Arraia-Maeztu Leorza/Elortza                | 1                   |
| Arraia-Maeztu Maeztu/Maestu                 | 1                   |
| Arraia-Maeztu Musitu                        | 1                   |
| Arraia-Maeztu Onraitia/Erroeta              | 1                   |
| Arraia-Maeztu Róitegui/Erroitegi            | 1                   |
| Arraia-Maeztu Sabando                       | 1                   |
| Arraia-Maeztu Vírgala Mayor / Birgaragoien  | 1                   |
| Arraia-Maeztu Vírgala Menor / Birgarabarren | 1                   |

| Entitatea                                                      | Zaugarritasun-maila |
|----------------------------------------------------------------|---------------------|
| Arrankudiaga-Zollo Arene                                       | 4                   |
| Arrankudiaga-Zollo Aspiuntza                                   | 2                   |
| Arrankudiaga-Zollo Uribarri                                    | 3                   |
| Arrankudiaga-Zollo Zollo-Elexalde                              | 2                   |
| Arrankudiaga-Zollo Zuloaga                                     | 2                   |
| Arrasate/Mondragón Arrasate/Mondragón Hiri-entitatea Urbaezina | 4                   |
| Arrasate/Mondragón Bedoña                                      | 4                   |
| Arrasate/Mondragón Garagartza                                  | 4                   |
| Arrasate/Mondragón Gesalibar                                   | 3                   |
| Arrasate/Mondragón Meatzerreka                                 | 4                   |
| Arrasate/Mondragón Udala                                       | 3                   |
| Arratzu Barroeta                                               | 3                   |
| Arratzu Barrutia                                               | 4                   |
| Arratzu Elexalde                                               | 2                   |
| Arratzu Gorozika                                               | 3                   |
| Arratzu Loiola                                                 | 4                   |
| Arratzu Monte                                                  | 2                   |
| Arratzu Uarka                                                  | 3                   |
| Arratzu Zabala-Belendiz                                        | 3                   |
| Arratzu Zubiate                                                | 3                   |
| Arratzua-Ubarrundia Arroiabe                                   | 2                   |
| Arratzua-Ubarrundia Arzubiaga                                  | 2                   |
| Arratzua-Ubarrundia Betolaza                                   | 2                   |
| Arratzua-Ubarrundia Durana                                     | 4                   |
| Arratzua-Ubarrundia Landa                                      | 2                   |
| Arratzua-Ubarrundia Luko                                       | 3                   |
| Arratzua-Ubarrundia Mendibil                                   | 3                   |
| Arratzua-Ubarrundia Nanclares de Ganboa/Langara Ganboa         | 2                   |
| Arratzua-Ubarrundia Ullibarri-Gamboa                           | 3                   |
| Arratzua-Ubarrundia Ziriano                                    | 2                   |
| Arratzua-Ubarrundia Zurbano/Zurbao                             | 4                   |

| Entitatea                                           | Zaugarritasun-maila |
|-----------------------------------------------------|---------------------|
| Arrieta Agirre                                      | 2                   |
| Arrieta Jainko-Oleaga                               | 2                   |
| Arrieta Libao                                       | 3                   |
| Arrieta Olatxua-Olabarri                            | 2                   |
| Arrigorriaga Abusu/La Peña Hiri-entitatea Urbaezina | 4                   |
| Arrigorriaga Agirre                                 | 2                   |
| Arrigorriaga Arrigorriaga Hiri-entitatea Urbaezina  | 4                   |
